



Aspertxu Asperger eta AEN Bizkaia Elkarte

Tfn: 944810354

Areeta-Getxo

www.aspertxu.com

Bizkaiko Asperger eta AEN Aspertxu Elkarte, CONFAErekin (Espainiako Asperger konfederazioarekin) elkartuta dago eta 2014ko azaroan inauguratu zen; 2015ean bere kudeaketa administratibo guztia ofizialki burutuz.

Elkartearen sorreratik, Aspertxuk Asperger Sindromea duten pertsonen aintzatespena eta gizarteratzea sustatu nahi izan du, eta, horretarako, helburu horietara zuzendutako jarduera ugari burutu ditu urte hauetan.

Aspertxu Elkarteak, elkarteko bazkideei emandako erantzunak eta arreta hobetzeko, **helduen eta nerabeen laneratzeko eta gizarteratzeko programa** aurkezten du. Programa honek hiru jarduera ditu:

1. **Gizarte trebetasunei buruzko 4 tailer** egingo dira, 75 minutukoak bakoitza. Tailer horiek, Asperger Sindromean adituak diren psikologo kliniko batek eta elkartearen administrazio langileek emango dituzte. Lan eta gizarte munduari begira, trebetasunak eta estrategiak eskuratzeko helburua dute, hurrenez hurren. Irailtik abendura bitartean antolatutako 4 tailer dira:
 - a. Irailaren 27a, 19:30etik 20:45era – **“Nola aurre egin lan elkarrizketa bati”**
 - b. Urriaren 25a, 19:30etatik 20:45era – **“Lantokiko lankide eta nagusiekin elkarreragina”**
 - c. Azaroaren 29a, 19:30etatik 20:45era – **“Lanorduen antolaketa, plangintza eta autonomia”**
 - d. Abenduaren 20a, 19:30etatik 20:45era – **“Zurruntasuna, saihespena eta egokitzapen ezarako estrategiak eskuratzeko”**.

Doan izango dira bazkideentzat eta 5 euro balioko du tailer bakoitzak bazkide ez direnentzat. KOVIDek sortutako egoera dela eta, online egin ahal izango direla aurreikusten da (Zoom plataformaren bidez).

2. Aspertxuk **hitzaldiak** emango ditu, **doan, nerabe eta helduentzako prestakuntza zentroetan**, baita **enpresa** desberdinetan ere, Asperger Sindromea duten pertsonen ezagutzari eta sentsibilizazioari buruz.
3. Gurekin lankidetzan aritzeko interesa duten **enpresa, prestakuntza zentro eta unibertsitate batzuk bisitatzeko aukera** emango da.

Horrez gain, Aspertxuk, lanpostu bat aurkitu nahi duten guztien erregistroa eramango du, harremanetan jarritako enpresetan sortzen diren lan eskaintzak helaraziko zaizkie eta kurrikuluma eta aurkezpen gutunak sortzeko aholkuak eta orientazioa emango zaizkie.